



Bake Ibilbideak esperientzia bizi!

Ideologiak, sinesmenak eta sentimenduak alde batera utziz, guztiok elkarrekin bizi gara hirian, horrela izan da, bada eta izango da. Inguru honek gertaera, bizipen eta esperientzia guztiak jasotzen ditu, partekatuak direnak eta ez direnak ere. Inguru honek iragana jasan du eta gaur egun itxaropenen etorkizuna ereiteko lekua ere bada. Azken batean, hau da elkarbizitzetik bizikidetzara eramango gaituen bidearen testuingurua.

EGKren **Bake Ibilbideak** ekimenak euskal hiriburu bakoitzera bizi ditugun denboraren hiru ardatzak eraman nahi ditu: iragana, oraina eta etorkizuna. Hiru "txoko" hauek ibilbide baten bidez lotzen dira eta bidean gaudela, elkarrizketarako tartea izango dugu, bai eta unearen sinbolismoarekin bat datozen hainbat ekintza egiteko ere. Giro lasaian eta erosoan bukatzeko, saioa pintxo potearekin amaituko dugu.

Helburuak:

- Iragana, oraina eta amankomuneko etorkizunaren ikuspuntutik, hiria ezagutu, aztertu eta bertan bizi.
- Beste hiritarren aurrean gazteriaren gai hauen inguruko kontzientzia eta sentiberatasuna ezagutzera eman.

Datu intesgarriak:

- Lekua eta datak:
 - BILBOko Bake Ibilbidea BILBAO: **azaroak 14 (ostirala)**.
 - VITORIA-GASTEIZko Bake Ibilbidea VITORIA: **azaroak 20 (osteguna)**.
 - DONOSTIAKO Bake Ibilbidea: **azaroak 28 (ostirala)**.
- Orduetgia eta iraupena: 16.00etatik 20.30etara.
- **DOAKOA**. Gainera, ibilbidea hasten dugun tokira joateko bidaiaren gastua ordainduko da, frogagiria erakutsi ondoren. Bukatzean pintxo potera ere (edaria eta pintxora) gonbidatuko da.

Nola hartu dezaket parte?

18 eta 30 urte bitarteko adina baduzu, izena emateko epea zabalik dago EGK-ko edozein egoitzara telefonoz deituz, bakea@egk.org helbidera email bat bidaliz edo [formulario](#) hau betez.

Informazio gehiago jasotzeko Elvira C. García Vidalesekin harremanetan jarri, EGKren Bake eta Bizikidetzaren teknikaria 943.429767 telefonoan edo bakea@egk.org emailan.

